



## HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2015/11/11

BILERA ZENBAKIA: 10

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: Emma, Amaia, Jabi, Tere, Rut, Maddi eta Joxe Luis.

### EGINDAKO LANAREN LABURPENA

#### LANDUTAKO GAI ORDENA

##### 1. Aurrekontuak

Gaurko bilera Aurrekontuei buruz jarduteko antolatua izan da.

Horretarako, Emma Arrondo, diruzaina izan dugu bileraren moderatzaile eta eragile.

Lehenbiziko puntu bezala, aurtengo aurrekontutik, hau da, 2015etik 1.906,50 € erabili gabe gelditu dira: (1.000 € Ijitu elkartearen ekintzetako zirenak eta 906,50 € Arbel-Aitz-ek zuen zorra osatuta geratu delako)

Ondoren datorren urtekoak aztertzeari ekin diogu:

Emmak irizpide batzuk jarri ditu mahai gainean eztabaidatu beharrekoak:

- Ekintza mota eta kopurua
- Herritarrei zer eskaintzen zaiei
- Udalaren eskura azpiegitura, lokalak, e.a. jartzea
- Ekintzak aurrera ateratzeko aurrekontua
- Festak eta Jaiak aurrekontutik kanpo atera
- Ekintzak zeini zuzendutakoak diren
- Ludotekako ekintzak?
- Herri osoari zuzendutakoak
- Eragile bakar bati zuzendutakoak



- Gasturik ez duten ekintzak ere finantzatzea
- Autofinantzazioa norbanakoen esku
- Arbel-Aitz-eko 906 € poltsan sartu
- Ekintza kopurua urtean
- Bakarrik edo beste elkarte edo agente batzuekin elkarlanean
- Irekia

Irizpide guzti hauek kontuan hartuta, lehendabizi erabaki behar da zein ekintza diren irekiak eta zein itxiak.

Denbora luzez eztabaidatu ondoren, ez da azkenean erabaki Urkiko Jaiak eta Jubilatua Eguna ireki bezala onartu edo itxi bezala onartu eta beraiei kopuru jakin bate matea.

Ludoteka eta Gazteak-gaztelekuarentzako aurrekontutik 1.000 €-na ematea erabakitzen da.

Ondoren eztabaidatzen da, ekintza irekiei %-ko bat ematea eta itxiei beste %-ko bat. (adibidez %60 eta %40).

Azkenean bastante adostasun lortzen dugu aurrekontu guztietatik kantitate minimo berdin bat eragile guztiei eman (adibidez 1000 €) eta gelditzen den dirua irizpide hauek kontuan izanik banatu: ekintza kopurua, ekintza mota itxia/irekia, e.a. eta honen arabera puntuazio bat lortu eta horren arabera banaketa proportzionala egin.

Puntu hauek denak kontuan izanik, Emmak prestatuko ditu taula batzuk eta eragile guztiei pasako dizkigu, adibideak ikusiaz, bakoitzan bere elkarte edo taldean aztertu eta proposamenak egin ditzan.

21:20etan bilera amaitutzat eman dugu.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Aurrekontuei buruzko irizpideak eta metodoak hausnartu eta erabaki.	Urtarrilerako	Talde eragileek.
<b>HURRENGO BILERA</b>		
Hurrengo bilera, Urtarrilean egingo dugu.		